

## **PEPE ESPALIUREN LIBURUTEGIARI BURUZ**

Pepe Espaliú eta Artelekuren arteko harremanak 1989an hasi ziren, Pepe Espaliúk Juan Muñozek zuzendutako tailer batean parte hartu zuenean. Hiru urte beranduago, berak zuzendu zuen "La voluntad residual: parábolas del desenlace".

1992ko irailaren 26an "The Carrying" ekintza/performancea burutu zuen Donostiako Zinemaldia bitartean. Ekintza/performance horretan, bikote batzuk Pepe Espaliú besotan hartuta garraiatu zuten Maria Cristina hoteletik Alderdi Eder parkeraino, aulki batean eserita balego bezala eta ibilbide osoan lurrik ukitu gabe.

Ekintza/performancearen bitartez, IHESARI buruzko eztabaida piztu nahi izan zen gizartean, une horretan, gaixotasuna estigmatizatua baitzegoen.

1993an, hil aurretik, Pepe Espaliúk bere liburutegia eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Artelekuri. Modu berean, Artelekuk hitz eman zuen liburutegia mantendu, sustatu eta hedatu egingo zuela. 2003 eta 2004. urteetan funtsaren katalogazioa egin zen eta orain ikusgarri dago sarean.

### **Liburutegiaren Deskribapena**

Liburutegiak Pepe Espaliúren bizitza, gustuak, zaletasunak eta ikasketak islatzen ditu. Guztira lau mila bostehun liburuki jasotzen ditu (dokumentu berriak eta liburuki errepikatuak) arteari, filosofiari edo literaturari buruzko monografia eta aldizkako argitalpenen artean.

Arteari buruzko liburu eta katalogoetan argi eta garbi ikusten da autoreari arte garaikidea asko interesatzen zitzaioela, baina ez garaikidea bakarrik, baita primitiboa, historiaurrekoa edo kolonaurrekoa ere. Liburu askotan azaltzen dira Afrika eta kolonaurreko herrietako arteari buruzko ikerketak, eta baita Antzinako Ekialdeko eta Asiako artea ere.

Kultura klasikoko, Erdi Aroko eta Errenazimenduko kulturen arteari buruzko monografiak ere badaude, besteak beste, Michelangelori, Raphaeli eta Velazkezi buruzko ikerketak, eta Errenazimenduko eskulturari eta barroko arkitekturari buruzkoak.

Azkenik, artearen historiari buruzko liburuaren artean nabarmentzekoak dira XIX eta XX. mendeetako artistei eta joera artistikoei buruzko ikerlanak.

Artearen inguruko liburu horiei dagokienez, artista edo joera bati buruzko ikerketa zehatzak ez diren liburukiak ere badaude, artea hausnartzen eta ikertzen dutelako hain zuzen ere. Mintegi, ikastaro edo argitalpen liburuak dira, artea hausnartzea helburutzat dutenak.

Arteari buruzko liburuak artistaren gustuen isla badira, filosofiari buruzkoak artistaren ikasketa unibertsitarioenak dira.

Filosofia liburu gehienak garai horretakoak dira eta historian egon diren filosofia idazle garrantzitsuenenak dira. Horien artean, Platon, San Agustin, Descartes, Voltaire, Nietzsche, Kant edo Wittgenstein idazleen lanak aurki ditzakegu, baita gogokoen zituen joera filosofikoak ikertzen dituzten liburuak ere, psikoanalisi eta estrukturalismoa, alegia.

Bi joera horiei buruzko filosofia liburu asko daude Espaliúren liburutegian eta joera hori irudikatzen duten ordezkari garrantzitsuenen lanak ere aurki ditzakegu, Sigmund Freud, Jacques Lacan (Espaliú honen ikaslea izan zen), Derrida, Levi-Strauss edo Foucaultenak esate baterako.

Filosofiaz gain, literatura liburu anitz daude liburutegian.

Liburutegian dauden literatura lanak ikusita, Pepe Espaliúri poesia eta eleberria ere asko gustatzen zitzaizkiola ikusi dugu.

Poesia liburuaren artean, Homero, Virgilio edo Euripides idazle klasikoen lanak aurki ditzakegu. Horiez gain, erlijioari edo mistikari buruzko poesia idatzi zuten idazleen

lanak ere badaude, bere ibilbidean horren garrantzitsuak izan ziren Joan Gurutzekoarenak edo Teresa Avilakoarenak adibidez.

Liburutegiko XIX eta XX. mendeko poesia irudikatzen duten idazle gehienak espainiarrak, frantsesak edo iparramerikarrak dira. Idazle espainiarren artean, Rafael Alberti, Federico Garcia Lorca, Luis Cernuda eta Leopoldo María Paneroren lanak aurki ditzakegu; frantsesen artean, René Char, Paul Valery eta André Gide idazleenak; eta iparramerikarren lanen artean Wallace Stevens edo Paul Austerrenak. Hala ere, eleberria da liburutegian gehien aurki dezakegun generoa. Poesiarekin bezala, eleberraren historiari dagozkion maisulanak ere badaude liburutegian, Honoré de Balzac, Quevedo, Kafka, Borges edo Tolstoyrenak esate baterako.

Azpmarratzekoak dira baita ere liburutegian dauden idazle frantses eta ingelesen lanak, bai XIX. mendekoak (Rimbaud, Flaubert, Baudelaire, Stevenson eta Bronte) bai XX. mendekoak (Bataille, Tournier eta Conan Doyle). Gainera, Espaliú argi eta garbi uzten du abentura eleberrak gustatzen zaizkiola, eta batez ere Jules Verne eta Charles Dickensenak, horien eleberrak gehienak baititu.

Literatura lanen artean ipuin klasikoak (Alizia herrialde miresgarrian, Pinotxo...), eta gai ezberdinetako (Gabonei eta miresgarri buruzkoak, beldurrezkoak...) ipuin eta antologiak ikusi ditugu, eta hori deigarria gertatu zaigu.

Liburutegian dauden gai ezberdinetako liburuei dagokionez, Beckett, Stendhal eta Duras bezalako idazle eta protagonistak azpmarratu nahi genituzke, gizarteari buruzko kritikariak direlako eta homosexualitatea modu irekian planteatzen dutelako, euren bizitzan nahiz lanetan.

Espaliú (homosexuala zela aitortu zuen) Yukio Mishima, Jean Cocteau, Raymond Roussel eta Jean Genet bezalako idazleen lanak irakurri zituen. Lan horiek islatzen dutena zera da, gizarte baztertzailer eta itxi batetan gay izateak arazo asko eman ditzakeela.

Homosexualitateak eguneroko bizitza markatu zion Espaliúri, baina ez homosexualitateak bakarrik, baita 1991. urtetik aurrera izan zuen gaixotasunak ere, hiesak. Bi baldintza horiek zirela-eta, Espaliú non grato zen gizarte hartan, baina egiten zituen lanen eta artearen bitartez borroka egin zuen hiesaren eta homosexualitatearen inguruan egia osoa islatzeko. Horretarako, gaixotasunari buruzko liburu zientifikoak (aurrerapen medikoak, tratamendu farmazeutiko eta alternatiboak...) eta gaitza zeharka lantzen zuten liburuak (gizarteari buruzko gogoetak, hiesa eta artea...) eskuratu zituen.

Homosexualentzat aisialdirako gidak (Spartacus) eta jadanik aipatu ditugun literatura lanak dira homosexualitatearen inguruan dauden liburukiak.

Liburutegian badago besteetatik ezberdina den liburu sorta bat, bidaiari buruzko argitalpenez osatua.

Herrialde eta hiri ezberdinetako (Portugal, Frantzia, Londres, New York...) gidak eta mapak aurki ditzakegu, eta baita hainbat hiztegi ere (frantsesa, ingelesa, txinera...).

Horiek guztiak Frantzian ikasle garaian eskuratutakoak eta egindako bidai ezberdinetan bildutakoak dira.

Azkenik, badaude aipatu gaiekin loturarik ez duten liburuak ere, esate baterako, sukalde liburuak, edo publizitateari, eskuei, faunari, florari eta sexualitateari burukoak.

### **Katalogazioa**

Liburutegian aldizkako argitalpenak (hirurehun argitalpen gutxi gorabehera) eta argitalpen monografikoak (lau mila berrehun bat liburuki) bereiztu ditugu.

Aldizkako argitalpenak alfabetikoki ordenatuta daude artxiboetan eta edonork kontsulta ditzake. Artelekuk ez dauzka Pepe Espaliúren liburutegiko apaletan bakarrik dauden argitalpenen beste zenbakirik. Argitalpen guztiak katalogatuta daude eta bakoitzak fitxa bat dauka. Bertan, argitalpen zenbakiak azaltzen dira.

Artelekuk dituen edo izan dituen Espaliúren liburutegiko aldizkako argitalpenekin Dokumentazio Zentroa osatu da. Hala, orain, Dokumentazio Zentroan ez zeuden argitalpen guztiak edonoren eskura daude, fitxa katalogafikoan, fitxategian eta aldizkaritegian sartu ondoren. Errepikatuta dauden dokumentuak, aldizkako argitalpenak nahiz monografiak, erregistratu eta gorde egin dira liburutegian errepikatuta ez egotearren.

Pepe Espaliúk liburutegia lehen zuen bezala mantentzen jarraitzeko asmoz, ez ditugu liburuak gaika banatu eta beraz, apal berean arteari edo filosofiari buruzko liburuak, eta eleberriak aurki ditzakegu. Horrez gain, liburuen etiketa eta katalogo zenbakietan ere ez dugu gaia ezberdindu eta horrenbestez, biek zenbaki korrelatiboa dute.

Dokumentazio Zentroan ez dauden monografiak dokumentu berriztat hartu dira.

Deskribapen teknikoan lanari dagokion generoa (eleberria, poesia, biografia, ikerketa...) eta gaia (artea, filosofia, literatura...) ahalik eta zehatzen deskribatzen saiatu gara. Hori dela-eta, eleberriak ezberdindu egin ditugu gaiaren (abentura, homosexualitatea...) arabera, eta horrez gain, autorearen jatorrizko herrialdea, garaia (literatura frantsesa, ingelesa...), eta bizi izandako mendea zehaztu egin ditugu.

Arteari buruzko monografietan edukia zehatzen saiatu gara eta beraz, artista bati buruzkoa den ala ez aipatzen da (Picasso, Baldeón, Toulouse-Lautrec...), eta baita lanari dagokion herrialdea eta garaia (XVIII. mendeko pintura frantsesa...), eta hari dagokion joera artistikoa (postinpresionismoa, minimala, performance...).

Filosofiari buruzko argitalpenei dagokienez, zehaztu egin dugu filosofo baten lana den ala ez (Kanten "El Castillo" edo Nietzschearen "Así habló Zaratrusta"), edo filosofia eta filosofoaren lana ikertzen duten argitalpenak diren (Freuden lanen kritika eta interpretazioa, edo filosofia wittgenstianoaren ikerketa bat). Argitalpen horietan autorearen edo interpretaturiko filosofoaren joera filosofikoa zein den zehaztu dugu.

Katalogazio garaian, arazorik handiena hizkuntzak eman zigun. Espaliúk gazteleraz, frantsesez eta ingelesez ondo egiten zuen eta bere liburutegiko lan asko frantsesez (filosofia eta artea), ingelesez (hizkuntza ikasteko asmoa dutenentzat idatzitako literatura, adibidez), alemaneraz edo txineraz (dirudienez, euskararekin batera txinera ikasten ibili zen) idatzita daude.